

berriak

Triforio

-tik



araba
álava



“Katedraleko Artea”, inoiz baino gertuago



Azterketa eta katalogazio prozesu luzearen ondoren, Santa Maria Fundazioak Katedralaren ondare artistikoaren aberastasuna ezagutaraztea erabaki du. Atariak, margolanak, eskulturak, erretaulak, altzariak, hilobiak eta urregintza dibulgazio-proiektu berriaren parte dira. Proiektu horrek bere espazio propioa du webgunean –arte.catedralvitoria.eus–, eta edozein pertsonak eraikinaren hormen artean ezkutatzen den ‘altxor bizia’ ezagutzeko aukera izango du.

Ekimena Katedraleko artearen 65 elementu adierazgarrien inguruan egindako lanean oinarritzen da. Zehazki, 6 Atari, 13 margolan, 12 eskultura, 4 erretaula, 2 altzari, 9 hilobi, urregintzako 12 pieza, askotariko 5 elementu eta 4 obra gonbidatu hautatu dira.

Fundazioak horien guztien gaineko dokumentazio zehatza sortu du: lan bakoitzari buruzko testu komentatu bat, kalitate handiko argazki-multzo bat (artxiboak 213 argazki ditu guztira), elementu garrantzitsuenen bideo-tomak, audiogidetarako eta webgune-rako lokuzioak, eta pieza bakoitzaren fitxa



deskargagarriak, testuarekin, argazkiekin eta bibliografiarekin.


Material oso horretan oinarrituta, Fundazioak aberastasun artistikoaren zabalkundea bultzatu nahi izan du, eta hainbat ekimen jarri ditu abian, Katedralaren berezko elementuetan eta Santa Mariako arte higigarrian dagoen edertasuna ezagutarazteko.

Lehenengoa katedralaren webgunean atal espezifiko bat sortzea da, arte.catedralvito-

ria.eus. Bertan, hautatutako 65 elementuei buruzko informazio guztia jasotzen da. Bigarrenik, aipatu behar da 6 minutu eta erdiko bideo bat egin dela, pieza garrantzitsuenetan zeharreko ibilbidea eginda. Bideo hau Katedralaren webgunean eta youtubeko kanalean dago eskuragarri.

Hirugarrenik, ‘Katedraleko artea’ erakusketan bisita gidatuen eskaintzan sartuko da, pieza garrantzitsuenetan arreta jartzea ahalbidetuko duen esperientzia propioarekin. ‘Bisita gidatua Katedraleko artean zehar’ ekimenak 9 euroko prezioa izango du pertsonako (6 euro prezio murriztuaren onuradunentzat). Azkenik, 52 orrialdeko laburpen-katalogo bat ere egin da. Inprimatutako bertsioan 3 euroren truke eros daiteke, eta webgunetik pdf formatuan doan deskarga daiteke.

Era berean, ‘Katedraleko Artea’, bisitaren oinarrituko informazioa eta ondare artistikoari buruzko webgunearen atalari lotutako QR kodea dituen berriazko orrialde-markatzailer batean egongo da.



Inbentario artistikoaren aberastasuna

Luze jo du "Santa Maria Katedraleko Artearen" dibulgazioari ekiteko prozesuak. Aberastasun artistikoari balioa emateko lehen urratsa 2003an ondasun higigarrien inbentario xehatua egitea izan zen; bertan, kontserbazio-egoera desberdinetan zeuden hainbat kategoriatako 4.496 elementu sailkatu ziren. Prozesu horretan egurrezko eskulturak, harriko elementuak, metalak, altzariak eta ehunak aztertu ziren, besteak beste.



Ondoren, 2006 eta 2012 artean, Fernando Bartolomé EHUko irakasleak "ondare higigarriaren inbentarioaren balorizazio historiko-artistikoa" egin zuen, ondare-objektua ikuspuntu guztietatik ikertzeko, aztertze eta bertan sakontzeko.



Gainera, urte hauetan guztietan katedraleko elementuei buruzko ikerketa artistikoak egin dituzten pertsona askoren lankidetzara ere gehitu behar da. Ezinezkoa litzateke horietako bakoitza gune honetan izendatzea, baina Fundazioak eskerrak eman nahi ditu egin duten lanarengatik. Era berean, helbide honetan kontsulta daiteke azterlan honetarako erabilitako oinarriko bibliografia:

arte.catedralvitoria.eus/bibliografia



 **katedrala
SANTA MARIA**

Altxor bizia

